

Elikadura osasungarriaren aldeko konpromisoa

**EROSKI-K NUTRI-SCORE IPINI DU BERE MARKAKO
300 PRODUKTU BAINO GEIHAGOREN ETIKETAN**

- Urteko lehen erdi honetan, freskoetan eta elikagai ontziratuetan ipini dute etiketa berria
- Etiketa aurreratu berri hori aurrendaria da European, eta aurrerapen handia ekarriko du, hemendik aurrera errazagoa izango baita elikadura osasungarriagoa egitea; izan ere, argiago azalduta etorriko dira elikagaiek nolako nutrizio kalitatea izango duten
- Osasun Ministerioak eta Europako Batasunak balioztatua dago Nutri-Score, eta Osasunare Munduko Erakundearen babesa du; gainera, EROSKIko 8.500 bezero-bazkidek baino gehiagok haren alde egin dute, erabiltzeko erraza, baliagarria eta praktikoa dela iritzi baitiote

Elorrio, 2019ko irailaren 10a.- [EROSKI](#)ren dendetan dagoeneko hor dira marka propioko 300 produktu pasa Nutri-Score etiketarekin, beren nutrizio kalitatea haren arabera sailkatuta. Urtearen hasieran iritsi ziren EROSKIren saltokietara nutrizio arloko etiketa aurreratu hori duten aurreneko produktuak (tomate birrinduen konserbat bat, mikrohuin labean lurrunetan prestatzeko patata *pack* bat eta oliotan datozen tomate lehorren kontserba bat). Produktu horiekin, aitzindari bihurtu zen EROSKI Espainiako banatzaileen artean Nutri-Score etiketan ipintzen. Pixkanaka ari da hedatzen gainerako elikagaietara etiketa berria, baita freskoetara ere, eta haren asmoa da marka propioko 1.400 erreferentzian baino gehiagotan ezartzea etiketa eredu hori 2020an.

"Kontsumo arduratsu baten alde konprometituta gaudenez, ez dugu bakarrik produktuak hobetzeko zeregina hartzen, gizartean ere ohitura osasungarriak hedatzen eta erakusten laguntzen dugu era aktiboan. Dieta orekatu bat osatzeko, nahi eta nahiezkoa da elikagaiek nutrizio aldetik nolako kalitatea duten gardentasunez azaltzea. Hori dela eta, 2018ko amaieran, geure borondatez ipini genuen nutrizio arloko Nutri-Score etiketa aurreratua marka propioko produktuetan. Etiketa horrekin, kontsumitzaileak era errazean balora dezake elikagai batek nolako ezaugarriak dituen nutrizio aldetik eta antzeko produktuekin konparatu; hala, irizpide hobeak izango ditu eskura elikadura hobe, osasungarriagoa eta iraunkorragoa egiteko orduan", azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Elikadura-zientzien arloko akademikoek sortua da Nutri-Score eredua, eta Europako Batasunak balioztatua dago; gainera, Osasunaren Mundu Erakundearen babesa du. Etiketa ipintzen hastea erabaki aurretik, EROSKIren Bezero Bazkideek prozesu parte-hartzaile batez berretsi zuten proposamena. Parte hartu zuten 10.000 Bezero Bazkideetatik baino gehiagotatik %85ek egin zuten ekimenaren alde. Haien ustez, etiketa eredu hori erabilgarriagoa, argiagoa, osoagoa eta ulergarriagoa da, eta tresna aproposa nutrizio hautu hobeak egiteko.

Nutri-Score etiketa aurreratuak sailkapen orokor bat erakusten du nutrizio kalitatearen arabera, eta bost mailatako eskala soil bat darabil horretarako, bakoitza letra eta kolore batekin adierazia (A berdetik E laranja ilunera). Kalkuluei dagokienez, hiru elementu neurtzen ditu produktu baten 100 gramotan: kaloriak, osasunerako onak izan daitezkeen mantenugaiak (zuntza, proteina eta fruitu, barazki, fruitu lehor eta lekale kopuruak) eta murriztea komeni diren mantenugaiak (gantz saturatuak, gatzak eta azukreak).

Nutrizio arloko etiketa aurreratuaren aitzindariak joan deneko hamar urtean baino gehiagoan

EROSKI aurrendaria izan zen 2007an, nutrizio arloko semaforoa ipini baitzuen bere produktuen ontzietan. Aurrerapen handia ekarri zuen bere garaian, eta gaur egun bere markako artikulua guztietan da. Haren bitartez, kontsumitzaileek begi kolpe batean ikus dezakete zenbat kaloria, azukre, gantz, gantz saturatu eta gatz dakarren produktu baten errazio batek hura kontsumitzean, baita egunean kontsumitu beharrekoen ehunekoak ere, hiru kolorerekin, berdea, horia eta laranja; bere izenak dioen gisan, semaforoek bezala.

Orain, nutrizio arloko semaforoa eta Nutri-Score biak erabiltzen ditu EROSKI etiketetan. *"Eredu objektibo bat garatzearen alde egin dugu, informazioan oinarrituta eta sail bakoitzean orekatsuenak diren aukerak gomendatuta, hala baitator Osasunaren eta Iraunkortasunaren alde hartuak ditugun [10 konpromisoetan](#). Hori dela eta, beti saiatzen gara aurrealdean egoten informazioaren gardentasunaz denaz bezainbatean, eta sistemarik aurreratuenean alde egiten, kontsumitzaileek beren dieta diseinatzeko orduan erabaki hobeak hartzeko modua izan dezaten",* esan du Martinez Berriochoak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)